

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

5014

39/2020 DEKRETUA, azaroaren 20koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarrenez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak –SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duenak– birusaren hedapenari aurre egiteko askotariko neurriak aurreikusten ditu, eta horien erabilgarritasuna egiaztatuta geratu da, gure inguruko herrialdeek ere modu sistematikoan neurri horietara jo baitute; hori guztia Osasunaren Mundu Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazitakoarekin bat etorritik. Azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera hori luzatu egin zen, eta 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatzeko aurreikuspena egin zen.

Testuinguru horretan, lehendakariak bere eskumenez baliatuz emandako urriaren 26ko 36/2020 Dekretuan, adierazpen orokor batez gain, eranskin bat ere zehaztu zuen, eta, horren bidez, osasun publikoaren arloan jada hartutako neurri espezifikoak zehatz-mehatz eguneratuta, oinarrizko esku-bideei eragiten dieten eta alarma-egoeraren erregulazioan kokatzen duen aurreikuspen espezifiko bat duten hainbat neurri zehazten dira, agintaritza eskudunak osasun publikoaren krisi-egoerari aurre egiteko ezinbestekoak diren modulazio egokiak ezarri ahal izan ditzan, haren larritasun handiarekin proportzionalak, oinarrizko eskubiderik eten gabe, Konstituzioaren 55. artikulua eskatzen duenaren arabera.

Lehendakariaren 36/2020 Dekretuan konpromisoa hartu zen neurrien ebaluazio jarraitua eta jarraipena egiteko, neurri horiek egoera epidemiologikora egokitzen direla bermatzeko. Horren ondorioz, azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren bidez egindako lehen aldaketa batean egin ziren zehaztapen berrien panela eman zen. Aipatutako ebaluazio- eta jarraipen-prozesua etenik gabe egiteak beste erabaki bat hartzea dakar, Labiren foroko zehaztapen eta neurri sakonak aztertu ondoren, kasu honetan, hartutako neurrien luzapena islatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariari dagokio, agintaritza eskuordetu gisa, alarma-egoeraren eraginkortasunez ezartzen den zehaztapena onartzea.

Horrenbestez, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 2. artikuluan eta Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8. artikuluan oro har xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Luzatu egiten dira urriaren 26ko 36/2020 Dekretuan –azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak aldatuta– egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko hartutako neurriak, alarma-egoeraren adierazpenaren esparruan prebentzio-neurri espezifikoak zehazten dituztenak.

2020ko azaroaren 20a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honetan aurreikusitako neurrien jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egingo da, egoera epidemiologikoaren bilakaerara egokitzen direla bermatzeko. Ondorio horietarako, 2020ko abenduaren 10etik aurrera neurriak luzatu, aldatu edo ondoriorik gabe utzi ahal izango dira, kon-tuan hartuta data hori baino lehen edozein berregokitze egitea egokia edo beharrezkoa ere izan daitekeela.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu honek 2020ko azaroaren 21eko 00:00etatik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arau-tzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 20an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.